

# SARRERA

Proiektu honen egileak Nerea, Ainhoa, Leire eta Iratxe gara.

Azken urteetan gizartean ohitura aldaketa asko egon dira; lehen familiako baten bat etxean geratzen zen etxeko lanak egiten eta jatekoa egunero prestatzen zuen.

Gaur egun familiako kide askok kanpoan lan egiten dute, ez dute denbora askorik eta dutena gustoko gauzak egiteko ematen dute. Gure gizartean ere gero eta nagusi gehiago ditugu; asko bakarrik bizi dira eta jatekoa prestatzea asko kostatzen zaie.

Azken urteetan eta gizartean eman diren aldaketen ondorioz "fast food" delakoa modan jarri zen. Baina aspaldian jendea lehengo janarira bueltatzen hasi da eta janari osasuntsua eta betikoa eskatzen hasi da. Bizitza osasuntsuaren oinarri kirola eta jateko garbia bihurtu dira.

Guzti hau ikusirik eta Lea-Artibai mailan holako negozioirik ez dagoela ikusirik "JANARI PREST" martxan ipintzea pentsatu dugu. Km 0-ko produktuekin eta produktu ekologikoekin egindako bazkariak egingo ditugu. Gure lokalean saldu edota bezeroak eskatzen duten tokira eramango ditugun denbora tarte txiki batean.



# IDEIA

Gure negozioaren ideia mugikortasun murriztua, lanean dauden eta sukaldatzeko astirik ez duten, edo egunen batean arazoren batengatik, janaririk gabe geratu diren pertsonentzat janaria prest izatea da.

